

Goi Zikloa

5. maila

AURKIBIDEA

A. HELBURU PRAGMATIKO EDO KOMUNIKATIBOAK.

1. TREBETASUN MAILA.

- 1.1. Mintzamina.
- 1.2. Entzumena.
- 1.3. Idazmina.
- 1.4. Irakurmina.

2. HIZKUNTZ EKINTZAK.

- 2.1. Gizarte harremanak.
- 2.2. Besteenganako eragina.
- 2.3. Iritzia.
- 2.4. Informazioa.
- 2.5. Eztabaida.

B. GRAMATIKA HELBURUAK

1. PERPAUSA.

- 1.1. Perpaus motak (esanahiaren arabera).
- 1.2. Perpausaren egitura: galdegaia eta elementuen ordena.

2. PERPAUS BAKUNA: IZEN SINTAGMA.

- 2.1. Izena.
- 2.2. Izenordainak
- 2.3. Determinatzaileak.
- 2.4. Izenondoak.
- 2.5. Izenlagunak.
- 2.6. Aposizioa.
- 2.7. Adberbioa.

3. DEKLINABIDEA.

- 3.1. Deklinabide kategoriak.
- 3.2. Deklinabide kasuak.

4. PERPAUS BAKUNA: ADITZ SINTAGMA.

- 4.1. Aditz motak.
- 4.2. Aditz kategoriak
- 4.3. Aditz jokatuabeak.
- 4.4. Aditz jokatuak.

5. PERPAUS ELKARTUA.

- 5.1. Juntadura eta alborakuntza.
- 5.2. Menderakuntza.
- 5.3. Testu mailako lotura: lokailuak.
- 5.4. Testu antolatzaileak.

6. FONOLOGIA.

7. LEXIKOA.

OHARRAK

Programa hau burutzeko honako lanak erabili dira bereziki:

Euskal Gramatika, Lehen Urratsak, I-IV. Euskaltzaindia, 1985-94

Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna. Euskaltzaindia, 1993.

Euskal Gramatika Osoa. Ilari eta Entzi Zubiri, Didaktiker, 1995.

Eskola Gramatika. Andres Alberdi, Elkar, 1996.

Terminologia, sailkapena eta kasu askotan adibideak beraiek ere liburu horietarik hartuak dira. Iturri horietara jotzea dauka zehaztasun gehiago nahi duenak.

Programa osoan zehar ageri diren adibideek balio argigarria besterik ez dute, kontzeptu edo egitura gramatikalak baitira menperatu beharrekoak, eta ez terminologia eta honen oinarria den teoria gramatikala, berau lagungarri eta argigarria gerta badaiteke ere.

A. HELBURU PRAGMATIKO EDO KOMUNIKATIBOAK.

1. TREBETASUN MAILAK.

Gaitasun mailako agiriaren jabe izateak honako hau adierazi beharko luke: agiria duenak, euskara ahoz eta idatziz era egokian eta trebetasunez erabiltzeko gauza dela. Ikaslea trebea izan beharko da bai hizkuntza produzitzen, bai dekodifikatzen eta hala, oinarrizko kultur mailako euskara ulertzeko, irakurtzeko, hitzegiteko eta idazteko eskatuko zaio.

1.2. ENTZUMENEAN.

Kultur maila orokorreko euskaraz eginiko edozein hizketa ulertzeko gaitasuna eskatuko da.

1.2. MINTZAMENEAN.

Goian aipatutako hizketa mailan hiztun gisa parte hartzeko gaitasuna.

1.3. IRAKURMENEAN.

Kultur maila orokorreko euskaraz, batuaz batez ere, idatziriko prosa testuetan - egunkari, aldizkarietakoak, e.a.- hiztegiak baliatu gabe hari nagusia eta xehetasunak jasotzeko gaitasuna lortzea eskatuko da.

1.4. IDAZMENEAN.

Ikaslearentzat interesgarri diren prosa-testu errazak ulertzeko gauza izatea, nahiz eta gai arrotzen ingurukoak ulertzeko hiztegia erabili behar izan.

2. HIZKUNTZ EKINTZAK.

2.1. GIZARTE HARREMANAK.

2.1.1. Agurrak: *Agur - bai, agur; egunon - baita zuri ere; gabon - halan ekarri; gero arte;...*

2.1.1. Aurkezpenak: *Kaixo, ni X naiz; pozten naiz; urte askotarako;...*

2.1.1. Harremanen ezarpena

2.1.1. Eskaintzak eta eskerronaren agerpena: *Mila esker; eskerrik asko;...*

2.1.1. Ulermenaren adierazpena: *Ez dut ondo ulertu; orain ulertu dut; zer diozu?;...*

2.1.1. Desenkusak: *Barkatu; sentitzen dut;...*

2.1.1. Nahiak: *Zer nahi duzu?; gustura joango nintzateke;...*

2.1.1. Hitz hutsak: *Zera; ba; beno;...*

2.2. BESTEENGANAKO ERAGINA.

2.2.1. Zirikaldia (inzitazioa): *Ea ba, animatu; baietz egin!; ezetz asmatu!;...*

2.2.1. Baiezko eta ezezko agindua: *Zaude ixilik; kendu hortik; zatorz hona;...*

2.2.1. Aholkuak, abisuak: *Kontuz!; azkar!; hemendik;...*

2.2.1. Eskaera: *Mesedez, emango zenidake...?;...*

2.3. IRITZIA.

2.3.1. Iritzi intelektuala

2.3.1.1. Onespena: *Bai horixe!; oso ondo; ongi egin duzu;...*

2.3.1.1. Gaitzespena: *Bai zera!; Ez dago ondo;...*

2.3.1.1. Kalifikazioa: *Izugarrria!; ezin ederragoa!; inoiz baino hobeto;...*

2.3.1.1. Konparazioa: *Hau hobea da; beste hori handiegia da;...*

2.3.1.1. Aukeraketa, hobespena: *Zein nahiago duzu; hau hartuko nuke;...*

2.3.1.1. Axolagabetasuna: *Niri berdin dit; bost axola!;...*

2.3.1.1. Arintzea: *Ez du inporta; ez da ezer izan;...*

2.3.2. Iritzi afektiboa

2.3.1.1. Nahigabea: *Kaka zaharra!; arraioa!;...*

2.3.1.1. Atsekabea: *Hau zoritxarra;...*

2.3.1.1. Dezepzioa: *Ez dago zereginik!; alferrik da!;...*

2.3.1.1. Atsegina: *Atsegin dut holako lana; oso pozik nago hemen;...*

2.3.1.1. Eskerrona: *Eskerrak zuri;...*

2.4. INFORMAZIOA.

2.4.1. Informazioa ematea: *Hau egin behar duzu; hortik joaten da;...*

2.4.2. Informazio eskaera: *Esango didazu zer egin behar dudan;...*

2.4.3. Honako informazioak:

2.4.3.1. Datu objetiboak: *10etan irtengo da, 17 urte dauzka;...*

2.4.3.1. Gertaerak: *Goizean gertatu da; etxe aurrean izan da;...*

2.4.3.1. Deskribapenak, e.a.: *Holako eta halakoa da;...*

2.5. EZTABAIDA.

2.5.1. Adostasuna, desadostasuna: *Ados nago; oker zaude; jakina!; bai horixe!;...*

2.5.2. Argudiaketa

2.5.2.1. Argudio baten hasiera eta garapena

2.5.2.2. Aldeko argudioak: *Honek beste hori frogatzen du;...*

2.5.2.3. Konklusioen finkapena: *Laburbilduz; amaitzeko esan dezagun;...*

2.5.2.4. Zergatiaren adierazpena: *Honen zergatiak honakoak dira;...*

2.5.2.5. Ondorioa: *Ondorio bezala esan daiteke;...*

2.5.2.6. Helburua: *Gure helburua ez da irabaztea;...*

2.5.2.7. Amore ematea: *Hala izango da; tira, ba!; zuk nahi duzuna;...*

2.5.2.8. Baldintza: *Etorriz gero; egin ezean; baldin bagoaz;...*

2.5.2.9. Hipotesia: *Demagun; egia balitz;...*

2.5.2.10. Aurkaritza: *ezin gaitezke ados egon; ez nator bat;...*

B. GRAMATIKA HELBURUAK

1. PERPAUSA.

1.1. PERPAUS MOTAK (esanahiaren arabera).

1.1.1. Adierazpen perpausak

a) Baiezkoak: *Asko gustatu zait azken liburua.*

b) Ezezkoak: *Ez dut sekula horrelakorik ikusi.*

1.1.2. Galde perpausak: *Noiz bukatuko dugu partida?*

1.1.3. Aginte perpausak: *Ez zaitetz berriro hemen agertu.*

1.1.4. Harridura perpausak:

a) Bai: *Bai ausarta dela umea!*

b) Erakusleak.: *Hau zorte txarra!*

c) Ze(r) / Zein: *Ze eguraldi ederra dagoen gaur!*

d) Nolako / Zelako: *Nolako imaginazioa daukazu!*

1.2. PERPAUSAREN EGITURA: Galdegaia eta elementuen ordena.

1.2.1. Ordena ez-markatua:

a) *Goizean, alkateak prentsaurreko bat eman du.*

b) *Bihar denok mendira joango gara.*

1.2.2. Ordena markatuak:

a) Izena: *Aurreko ikasleak erantzun du ondo.*

b) Izenordaina: *Zeuk egingo duzu orain.*

c) Erakuslea: *Horixe da galduta zegoen liburua.*

d) Adberbioa: *Hementxe zeuden poltsak.*

e) Aditza: *Lapurtu egin dizkigute poltsak.*

f) Baiezkotasuna: *Badator autobusa.*

c) Erakusle (izenordain) indartuak:

	berau	berauek
	berori	beroiek
	bera	beraiek

2.3.2. Zenbatzaileak:

2.3.2.1. Zenbatzaile zehaztuak:

- a) Kardinalak (zenbakiak)
- b) Ordinalak: Lehen/ -garren
- c) Zatikiak: Erdia, herena, laurdena.
- d) Ehunekoak: *Gasolina ehuneko bost (%5) igo da.*
- e) Banatzaileak: Bana, bosna/ bakoitza-bakoitzeko.
- f) Zenbait esapide: Bizpahiru, hogeit bat / hogeiren bat, baten bat, ehun inguru, gutxi gora-behera, milatik gora, hamarretik hogeira bitartean, milaka;...

2.3.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak: Zenbat, batzuk, zenbait, asko, gutxi, honenbeste, hainbat, ugari, dexente, nahiko(a), aski, pilo bat, makina bat, apur bat, pixka bat;...

2.3.2.3. Zenbatzaile orokorrak: Dena, guztia, oso, bete.

2.4 IZENONDOAK.

2.4.1. Graduatzailak:

- a) Superlatibo absolutua: *Libururik politena erosi dute.*
- b) Izenondo konparatiboak: *Etxe handiagoa behar dut.*
- c) Neurritz gorako kalitateak: *Etxe hori handiegia da.*

2.5 IZENLAGUNAK.

2.5.1. -en atzizkia: *Non utzi dituzu umeen jertseak?*

2.5.2. -ko atzizkia:

2.5.2.1. Izen sintagma + -ko:

- a) Izena + -ko: *Anjelez fida zaitezke, hitzeko gizona da eta.*
- b) Izena + izenondoa + -ko: *Indar handiko pertsona da.*
- c) Zenbatzailea + -ko: *Lau hankako mahaia.*
- d) Zenbatzaile zehaztuak: *Bi urteko semea daukat.*
- e) Zenbatzaile zehaztugabeak: *Josu hitz gutxiko gizona da.*
- f) Zenbatzaile orokorrak: *Urte osoko soldata gastatu du auto berrian.*
- g) Zenbat/zenbateko: *Zenbateko interesa ematen dizute?*

2.5.2.2. Adberbioa + -ko:

- a) Nola/nolako
- b) Aditzondoak: *Sekulako, Egundoko, Betiko.*
- c) Deklinabide-kasuak: *Nongo, norako.*
- d) ZerezKO: *Plastikozko botilak kristalezkoak baino merkeagoak dira.*
- e) Posposizioak: *Amnistiaren aldeko manifestazioa dago.*
- f) Zeri buruzko: *Tibeteko kolonizazioari buruzko erreportaia eman dute.*

2.6. APOSIZIOA.

2.6.1. Aposizio ez-murrizgarriak

- a) *Bilbo, Bizkaiko hiriburua, asko aldatzen ari da.*
- b) *Amaia, nirekin lan egiten duena, gaixorik dago.*

2.6.2. Aposizio murrizgarriak

- a) *Osaba iñaki etorri da.*
- b) *Lasa andreak deitu du zutaz galdezka.*
- c) *Txirrita bertsolari handiak kantatu zuen bezala.*
- d) *Gorbeia mendian gurutze handi bat dago.*

2.7. ADBERBIOA.

2.7.1. Aditzondoak.

2.7.1.1. Aditzondoaren sailkapen formalak

1. Aditzondo bakunak: *Sarri, agudo, iaz, urrun, gertu, aspaldi,...*
2. Aditzondo eratorriak
 - a) -ki: *Poliki, automatikoki, laburki,...*
 - b) -ik: *Pozik, bizirik, hutsik, zutik,...*
 - c) -ro: *Berriro, astiro, zeharo, geldiro,...*
 - d) -to: *Polito, ederto, hobeto, txarto,...*
 - e) -ka: *Presaka, korrika, saltoka, zarataka,...*
3. Esaera adberbialak: *Gutxi gora-behera, noizik behin, batez ere,...*

2.7.1.2. Aditzondoaren sailkapen semantikoa

Denborazkoak k agudo, antzina, arin, aspaldi, lehenik, oraindik, jadanik, edonoiz, inoiz,...	Lekuzkoak edonon, nonahi, hortik, hona, hurbil, urrun, gertu, pikutan, hemen, han,...	Moduzkoak egiazki, apurka, oinutsik, alferrik, ados, kili-kolo, primeran, bizkor, itsu- itsuan, hala	Mailazkoak oso, ozta- ozta, ia-ia, nahikoa, guztiz, batere, samar, aski, izugarri,	Iritzizkoak ustez, jakina, noski, agian, beharbada, dirudienez, antza, itxuraz,...
---	---	--	--	--

2.7.2. Posposizioak:

NOREN

alde(an)	arabera	arte(an)	aurka / kontra
aurrean	atzean / ostean	azpian	barruan / barnean
beharrean	bidez / bitartez	esku	gainean
inguruan	kontu / kabuz	menpe(an)	ondoan / alboan
ordez	parean	partez	truk(e)

ZER(IK)

ZEREZ

gabe (barik)	faltan	gain(era)	bestalde(an)
--------------	--------	-----------	--------------

NORI

NONDIK

buruz	esker	kanpo	zehar
-------	-------	-------	-------

NON

zegar	gora	behera	barrena
POSPOSIZIO ANTZEKO ADITZ LOKUZIOAK			
begira	bila	eske	zain

3. DEKLINABIDEA.

3.1. DEKLINABIDE KATEGORIAK.

3.1.1. Izen berezia / izen arrunta

3.1.2. Biziduna / bizigabea

3.1.3. Numeroa:

a) Singularra.

b) Plurala.

c) Mugagabea.

3.1.4. Bokal / kontsonatea.

3.2. DEKLINABIDE KASUAK.

3.2.1. Kasu gramatikalak.

a) Nor (Absolutiboa)

b) Nork (Ergatiboa)

c) Nori (Datiboa)

3.2.2. Leku-denborazko kasuak.

a) Non (Inesiboa)

b) Nondik (Ablatiboa)

c) Nora (Adlatiboa)

d) Nongo (Leku-denbora gentiboa)

e) Norako (Adlatibo destinatiboa)

f) Norantz (Hurbiltze adlatiboa)

g) Noraino (Muga adlatiboa)

h) Norengan (Bizidunen inesiboa)

i) Norengandik (Bizidunen ablatiboa)

j) Norengana (Bizidunen adlatiboa)

k) Norenganantz (Bizidunen hurbiltze adlatiboa)

l) Norenganaino (Bizidunen muga adlatiboa)

3.2.3. Genitiboa eta bere eratorriak.

a) Noren (Genitiboa)

b) Norentzat (Destinatiboa)

c) Norekin (Soziatiboa)

d) Norengatik (Motibatiboa)

3.2.4. Kasu bereziak.

a) Zerik (Partitiboa)

b) Zerez (Instrumentala)

c) Zertzat (Prolatiboa)

3.2.5. Berdeklinabidea.

a) Norentzako (Destinatibo berdeklinatua)

b) Norekiko (Soziatibo berdeklinatua)

c) Norenganako (Bizidunen adlatibo berdeklinatua)

d) Norainoko (Muga adlatibo berdeklinatua)

4. PERPAUS BAKUNA: ADITZ SINTAGMA.

4.1. ADITZ MOTAK.

4.1.1. Aditz bakunak: *Etorri, haserretu, konzientziatu,...*

4.1.2. Aditz lokuzioak:

- a) Izan aditzak: *Ahal, ezin, nahi, behar, balio, bizi, merezi,...* izan.
- b) Egin aditzak: *Hitz, lo, lan, amets, oihu, barre, negar,...* egin.
- c) Hartu aditzak: *Kontuan, hitza, parte, begitan hartu,...* hartu.
- d) Eman aditzak: *Kontu, hitza, denbora, amore, musu,...* eman.
- e) Erabili aditzak: *Asmoa, buruan, ahoan, autua,...* erabili.

4.2. ADITZ KATEGORIAK

4.2.1. Denbora:

4.2.1.1. Orainaldia: *Azterketa aprobatu dut eta ospatzen ari naiz, gero egingo diot kasu.*

4.2.1.2. Lehenaldia: *Berandu iritsi nintzen, ama afaltzen ari zen eta aita ohera joatekoa zen.*

4.2.2. Aspektua:

4.2.2.1. Puntukaria: *Noa, pentsatzen ari naiz, behar dut.*

4.2.2.2. Burutua: *Joan naiz, pentsatu dut, behar izan dut.*

4.2.2.3. Burutugabea: *Joaten naiz, pentsatzen dut, behar izaten dut.*

4.2.2.4. Burutzekoa: *Joango naiz, pentsatuko dut, behar izango dut.*

4.2.3. Modua:

4.2.3.1. Indikatibo (- ahala): *Arratsaldean etorriko naiz.*

4.2.3.2. Indikatibo-Baldintza (+ ahala): *Egingo ez bazenu, hobe.*

4.2.3.3. Ahalera (+ ahala): *Aurten ezin gaitezke joan.*

4.2.3.4. Subjuntiboa (- ahala): *Hasi gaitezen berriro.*

4.2.3.5. Agintera: *Esaidazu ikusi duzuna.*

4.2.4. Erregimena:

4.2.4.1. NOR eta NORK motako aditzak:

a) NOR erregularrak: *Osaba hil da.*

b) NOR-NORK erregularrak: *Osabak katua hil du.*

c) NOR-(NORK) irregularrak: *Euria egiten du.*

d) (NOR)-NORK irregularrak: *Horrek tipo argia dirudi.*

4.2.4.2. NORIdun aditzak

a) NOR-NORI erregularrak: *Lagun bat etorri zait bisitan.*

b) NOR-NORI-NORK erregularrak: *Aitak amari gona gorria ekarri.*

c) (NOR)-NORI-NORK irregularrak: *Gauean deituko dizut.*

4.2.4.3. Inpertsionala:

a) *Herri honetan gutxi irakurtzen da.*

b) *Pobreoi ez zaigu kasu handirik egiten.*

c) *Pobreoi ez digute kasu handirik egiten.*

4.2.4.4. Arazleak:

- a) *Autoa hemendik kenARAZI didate.*
- b) *Hori egiTERA BEHARTU naute.*
- c) *Barre ERAGIN dizut ala?*

4.2.5. Partikula modalak.

- a) *Al: Ausartuko al zara?*
- b) *Ote: Nola konponduko ote dugu?*
- c) *Omen: Aspaldian asmatu omen zuten.*
- d) *Ohi: Udetan etorri ohi dira herrira.*

4.3. ADITZ JOKATUGABEAK.

4.3.1. Partizipioa

- a) *-Ø: Etxe alokatu batean bizi gara*
- b) *-ta: Erdi bukatuta daukat lana, guztiz bukatuta ariketak.*
- c) *-ik: Animaturik ikusten zaitut gaur.*

4.3.2.1. Nominalizazioa

- a) *-tea: Garaiz heltzea detaile polita da.*
- b) *-teak: Txintxoarena egiteak ez dizu zigorra arinduko.*
- c) *-terik: Ez dago zurekin patxadaz hitzegiterik.*

4.3.2.2. Perifrasi multzoak

-TEA gustatu pentsatu erabaki ahaztu ... izan, ... egon	-TEN jakin, ikasi irakatsi, hasi lagundu utzi egon, ibili	-TERA behartu ausartu animatu gonbidatu zigortu	-TEKO prest egon asmoa izan gogoa izan gai izan lotsa izan	-TEARI utzi ekin iritzi eman
---	---	--	---	--

4.3.3. Gerundioa

- a) *-ten: Poteak hartzen ikusi nuen azkenengoz.*
- b) *-z: Behar denean galdetuz ez da erraza galtzea.*

4.4. ADITZ JOKATUAK.

4.4.1. Aditz jokatuak.

4.4.2. Aditz trinkoak.

4.4.2. Aditz trinkoak.

INDIKATIBOA: ORAINA

NOR

EGON	IBILI	ETORRI	JOAN	ETZAN
nago	nabil	nator	noa	natza
hago	habil	hator	hoa	hatza
dago	dabil	dator	doa	datza
gaude	gabiltza	gatoz	goaz	gautza
zaude	zabiltza	zatoz	zoaz	zautza
zaudete	zabiltzate	zatozte	zoazte	zautzate
daude	dabiltza	datoz	doaz	dautza

NOR-NORI

EGON	IBILI	ETORRI	JOAN			
nago kit	nabil kit	nato kit r	nator	na t	noa	
hago kik/n	habil kik/n	hato kik/n r	hator	hator		hoa
dago kio	dabil kio	dato kio r	dator	dator		doa
gago kigu z	gabiltz kigu	gato kigu z	gatoz	gatoz		goaz
zago kizu z	zabiltz kizu	zato kizu z	zatoz	zatoz		zoaz
zago kizue z te	zabiltz kizue te	zato kizue te z	zatozte	zatozt		zoazte
dago kie z	dabiltz kie	dato kie z	datoz	datoz		doaz

INDIKATIBOA: IRAGANA

NOR

EGON	IBILI	ETORRI	JOAN
nengoen	nenbilen	nentorren	nindoan
zegoen	zebilen	zetorren	zihoan
geunden	genbiltzan	gentozen	gindoazen
zeunden	zenbiltzan	zentozen	zindoazen
zeundeten	zenbiltzaten	zentozten	zindoazten
zeuden	zebiltzan	zetozen	zihoazen

INPERATIBOA

NOR

EGON	IBILI	ETORRI	JOAN
zaude	zabiltza	zatoz	zoaz
zaudete	zabiltzate	zatozte	zoazte

INDIKATIBOA: ORAINA

NOR-NORK NOR-NORK NOR-NORK NOR-NORK NOR-NORI-NORK
 EDUKI-EKARRI-ERAMAN JAKIN ERABILI *IO (ESAN) EKARRI-
 ERAMAN-*IO

na	t	daki(zki)t	darabil(tza)t	diot		t	t
ha	k/n	daki(zki)k/n	darabil(tza)k/n	diok/n		k/n	k/n
da	u(z)ka	-	daki(zki)	dio	dakar(z)ki	o	-
ga	kar(tza)	gu	daki(zki)gu	diogu	darama(z)ki	gu	gu
za	rama(tza)	zu	daki(zki)zu	diozu	dios	zu	zu
za	zue	daki(zki)zue	darabil(tza)zue	diozue		zue	zue
da	te	daki(zki)te	darabil(tza)te	diote		e	te

NOR-NORI-NORK NOR-NORK NOR-NORK
 IRITZI IRUDI IRAUN

<i>deritzot</i>	<i>dirudi</i>	<i>dirau</i>
<i>deritzozu</i>	<i>dirudite</i>	<i>diraute</i>

INDIKATIBOA: IRAGANA

NORK-NOR

EDUKI EKARRI ERAMAN JAKIN ERABILI *IO (ESAN)

neu(z)kan	nekar(tza)n	nerama(tza)n	neki(zki)en	nerabil(tza)n	nioen
zeu(z)kan	zekar(tza)n	zerama(tza)n	zeki(zki)en	zerabil(tza)n	zioen
geneu(z)ka	genekar(tza)n	generama(tza)n	geneki(zki)e	generabil(tza)	genioen
n			n	n	
zeneu(z)ka	zenekar(tza)n	zenerama(tza)n	zeneki(zki)e	zenerabil(tza)	zenioen
n			n	n	
zeneu(z)kat	zenekar(tza)t	zenerama(tza)t	zeneki(zki)te	zenerabil(tza)t	zenioten
en	en	en	n	en	
zeu(z)katen	zekar(tza)ten	zerama(tza)ten	zeki(zki)ten	zerabil(tza)ten	zioten

INPERATIBOA

NOR-NORK

EGIN EKARRI ERAMAN ESAN UTZI

<i>egizu</i>	<i>ekartzu</i>	<i>eramazu</i>	<i>esazu</i>	<i>uztazu</i>
<i>egizue</i>	<i>ekartzue</i>	<i>eramazue</i>	<i>esazue</i>	<i>uztazue</i>

NOR-NORI-NORK

EGIN EKARRI ERAMAN ESAN EMAN UTZI

<i>DA</i>	<i>DA</i>	<i>DA</i>	<i>DA</i>	<i>DA</i>	<i>DA</i>
<i>egi ZU</i>	<i>ekar i ZU</i>	<i>erama i ZU</i>	<i>esa i ZU</i>	<i>ema i ZU</i>	<i>utzi ZU</i>
<i>O</i>	<i>O</i>	<i>O</i>	<i>O</i>	<i>O</i>	<i>O</i>
<i>GU ZUE</i>	<i>GU ZUE</i>	<i>GU ZUE</i>	<i>GU ZU</i>	<i>GU ZU</i>	<i>GU ZUE</i>
			<i>E</i>	<i>E</i>	
<i>E</i>	<i>iE</i>	<i>iE</i>	<i>iE</i>	<i>iE</i>	<i>E</i>

5. PERPAUS ELKARTUA.

5.1. JUNTADURA ETA ALBORAKUNTZA.

Emendioa ETA ez ..., ez... bai ..., bai... ... ezezik ... ere / ezeze bere ez bakarrik..., ... ere -la ..., -la ... hala ..., nola ...	Hautakaritza EDO ALA EDOTA (NAHIZ) NAHIZ (ZEIN) ZEIN edo..., edo... ala..., ala...	Aurkaritza BAINA BAIZIK BAINO EZPADA BAINA alde batetik..., bestetik...
--	---	---

Adibideak:

- Bulegora heldu da ETA lanean hasi da.*
- EZ du lanik egiten, EZ besteoi lan egiten uzten.*
- BAI ikastolan, BAI etxean oso zintzoa izaten da.*
- Miren EZEZIK, beste guztiak ERE etorri egin dira.*
- EZ Miren BAKARRIK, beste guztiak ERE etorri egin dira.*
- Zazpi EDO zortzi pertsonak deitu dute.*
- Nola joango zara, autoz ALA hegazkinez?*
- NAHIZ hau, NAHIZ bestea, berdin-berdinak dira.*
- ZEIN gaur, ZEIN bihar joan, berdin-berdin dio.*
- Zuk ondo jokutzen duzu, BAINA nik hobeto.*
- Ez dago etxean, bulegoan BAIZIK.*
- Ez dut zugatik egin, Amaiagatik BAINO.*
- ALDE BATETIK interesatzen zaigu, BESTETIK garestiegia da.*

5.2. MENDERAKUNTZA.

5.2.1. Izen funtziozko menderakuntza.

5.2.1.1. Konpletiboak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabe
-LA	-TEA
-NA	-TEAK
-NIK	-TEARI,...
-N (subjuntiboa)	
EZEN... -LA/-N	Aditz partizipioa

Adibideak:

- Ezagutzen dudu LA uste dut, bai.*
- BA dakit txarto dagoena, baina berdin dit.*
- Ez pentsa hain erraza den NIK.*
- Ohea egin dezazue N nahi dugu gurasook.*
- Kronikariek idatzia dute EZEN gerra saihesteko aukera izan zute LA alde biek.*
- Kirola egiteari uz TEAK ez dizu kalterik baino egingo.*
- Oraingoan asmatu IZANAK ez du ezer esan nahi.*

5.2.1.2. Zehar galderak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabe
-(EA) -N	Galdetzailea + infinitiboa
-(EA) -N ALA EZ	
-NENTZ	
-NEZ	

Adibideak:

- Ez dakigu nora joango direN.*
- Oraindik ez dakigu egingo duguN ALA EZ.*
- Ez dakit NORI GALDETU.*
- Erreferenduma behin betiko argituko du herriak lantegia nahi duNENTZ.*
- Maiteak erran zerautan dirurik banueNEZ.*

5.2.1.3. Zehar aginduak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabe
-N (subj.)	-TEKO
-LA (subj.)	

Adibideak:

- Gehiegi ez hurbiltZEKO esan digute, arriskutsua omen da eta.*
- Saia zaitez gutuna gehiegi berandutu ez dadiN.*
- Mesedez lagundu niezaioLA eskatu zidan.*

5.2.2. Izenlagun funtziozko menderakuntza: Erlatibozkoak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabe
-N	-TAKO
-LAKO / -N	-IKO
ZEIN... BAIT-/N	Partizipioa
NON... BAIT-/N	
-NEKO	

Adibideak:

- Atzo ikusi genuen mutilak istripu bat izan du.*
- Orain arte eginDAKOak ez du ezertarako balio.*
- Hori berak asmatuRIKOa da.*
- Ondo zaudeteN seinalea da hemen azaltzea.*
- Fabrika itxiko duteLAKO zurrumurrua zabaldu da herrian.*
- Altxatu zen emazte zaharra, ZEIN BAITzen sorgina.*
- Joan zen Danapaleura, NON BAITzen orduan Nafarroako Parlamentan (Axular)*
- Ezin ahaz dezaket itotzekotan izan nintzeNEKO hura.*
- Atzo EKARRI landareak non dira? (Lafitte)*

5.2.3. Adizlagun funtziozko menderakuntza.

5.2.3.1. Denborazkoak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabean	
-NEAN	AURRETIK	ETA GERO
-LA	ARTE	ETA SEGITUAN
-LARIK	ONDOREN	ETA LASTER
-NETIK	(BIT)ARTEAN	ETA BEREHALA
-NE(RA)KO	OSTEAN	ETA AGUDO
-NEZ GERO	AITZIN	
-N ARTEAN	ORDUKO	-TEAN
-N BITARTEAN	BAINO LEHEN	-TERAKOAN
-N BAKOITZEAN		-TAKOAN
-N EGUNEAN	BEZAIN LASTER	-TEKOAN
-N GUZTIETAN	BEZAIN PRONTO	-TERAKO
-N MOMENTUAN	BEZAIN AGUDO	-TEAR
-INO	BEZAIN AZKAR	-TEKO
ZORIAN		
HARIK ETA ... (-N) ARTE		BEZAIN FITE -
TEAZ BATERA		

Adibideak:

- a) *Ama ikusten due NEAN, poz-pozik jartzen da.*
- b) *Iturrira gindoaze LA, Bartolo ikusi genuen.*
- c) *Patxik eskolako lanak egiten ditue LARIK, telebista ikusten du.*
- d) *Istripua izan zue NETIK, ez da lehengoa.*
- e) *Gu heldu gine NERAKO, ez zen inor geratzen.*
- f) *Zuk harrikoa egiten duzu N BITARTEAN, nik kafea egingo dut.*
- g) *Saiatzen naize N BAKOITZEAN, txarto ateratzen zait.*
- h) *Ni atera naize N MOMENTUAN, bera sartu egin da.*
- i) *Zurekin hitz egiten duda N GUZTIETAN, zerbait apurtzen duzu.*
- j) *Etorri AURRETIK, telefonoz deitu, badaezpada ere.*
- k) *Egin ORDUKO, ondo aztertu behar dugu.*
- l) *Ezer egin BAINO LEHEN(AGO), ondo pentsatu.*
- m) *Josu etorri ARTE ezin gara hemendik mugitu.*
- n) *Afaldu ONDOREN alde zaharrera joan ginen.*
- ñ) *Jakin BEZAIN LASTER etorri naiz.*
- o) *Hura etorri ETA GERO gertatu ziren komeriak.*
- p) *Argia piz TEAN jaso dut deskarga.*
- q) *Ordain TZERAKOAN, poltsa lapurtu diotela konturatu da.*
- r) *Atea itxi TAKOAN konturatu nintzen giltzak barruan zeudela.*
- s) *Ikasketak amaitu nitue NEZ GERO ez naiz hara itzuli.*
- t) *Ezer apurtzen ez dute N ARTEAN utziezu jolasten.*
- u) *Zurekin hitz egiten duda N GUZTIETAN, gauza bera esaten didazu.*
- w) *Denbora duguino, ez etsiko.*
- x) *Zuk ez esan ezer, HARIK ETA irakasleak galdetu ARTE.*

- y) Zer egingo duzu bazkaldu OSTEAN?
- z) Afal AIZTINEAN mintzatu ziren luzaro.
- a') Lana amaitu BEZAIN AZKAR aldegin du.
- b') Jakin BEZAIN FITE erranen dizut.
- c') Ikusi BEZAIN AGUDO konturatu zen txarto zegoela.
- d') Partdua hasi ETA SEGITUAN lortu zten lehenengo gola.
- e') Azterketa hasi ETA BEREHALA aldegin zuen klasetik.
- f') Utzi zenidan liburua amaitZEAR daukat.
- g') Ez puztu gehiago, leherTZEKO ZORIAN dago eta.
- h') Zuzendaria agerTZEAZ BATERA, denak isildu ziren.

5.2.3.2. Moduzkoak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabean
-N BEZALA	-Ø BEZALA
-N MODUAN	-TAKO MODUAN
-N ERAN	-TEKO MODUAN
-N LEGEZ	-Ø LEGEZ
-N ANTZERA	-Ø ANTZERA
-N GISAN	-Ø GISAN
-LA	AHALA
-N NEURRIAN	-Ø ARABERA
-N HEINEAN	-Ø HEINEAN
-NEZ	-Z
BA-... BEZALA	-TA
BAIT-... -N	-IK

Adibideak:

- a) Egin itzazu nahi duzuN BEZALA.
- b) Utz ezazu dagoeN MODUAN.
- c) Aitak esan dueN ERAN egin dut, baina ez da ondo geratu.
- d) Irakasleak esan zueN LEGEZ egin behar ditugu.
- e) Nik ere zuk egin duzuN ANTZERA egin dut.
- f) Nik gogoratzen duduNEZ, ez zuen ordaindu.
- g) Zuk esan BEZALA egin dut.
- h) Ondoan deritzazuN GISAN egin dezakezu.
- i) Dina aurrera doaN NEURRIAN.
- j) Dirua biltzen duguN HEINEAN etxea altxatuz goaz.
- k) Denok dakikezueNEZ, gaurko hitzaldia hitzik gabe doa.
- l) Denok elkar ezagutuko BAgenu BEZALA, ibiltzen gara jolasean.
- m) Eguneroko kontuak BAliraN erabiltzen ditu ahoan.
- n) Nik dakidala, lehenengo aldia da gure artera datorrena.
- ñ) AginduTAKO MODUAN egingo dugu oraingoan.
- o) Lanean hasTEKO MODUAN hago hi!
- p) Detenituak aitortu ARABERA gauzak oso bestela gertatu omen ziren.
- q) AriZ AriZ ikasten omen du usoak hegan.
- r) Hor aritu zitzaigun barruan kabitu ezinDA.

s) *Bota AHALA ari da euria kanpoan.*

5.2.3.3. Konparaziozkoak.

Kualitatea	Kantitatea
Berdintasuna adieraziz	
(-N) BEZAIN	(-N) BESTE, ADINA
(-N) BESTEKO	(-N) LAIN
(-N) ADINAKO	(-N) BEZAINBAT
(-N) BEZAINBESTEKO	(-N) BEZAINBESTE
HONEN, HORREN	HONENBESTE, HORRENBESTE
HAIN	HAINBESTE
Ezberdintasuna adieraziz	
BAINO -AGO(A)	BAINO GEHIAGO / GUTXIAGO
Bestelako lokuzioak	
BEZALA, BEZALAKO	
AHALIK (ETA) -EN	AHALIK (ETA) GEHIEN / GUTXIEN
AHAL ...-NIK (ETA) -EN	AHAL ...-NIK (ETA) GEHI- / GUTXIEN
AHALBAIT -EN	AHALBAIT GEHIEN / GUTXIEN
ZENBAT ETA ...-AGO	ZENBAT ETA GEHI- / GUTXIAGO
HAINBAT ETA ... -AGO	HAINBAT ETA GEHI- / GUTXIAGO
GERO ETA ...-AGO	GERO ETA GEHIAGO / GUTXIAGO
ORDUAN ETA ...-AGO	ORDUAN ETA GEHI- / GUTXIAGO

Adibideak:

- Miren ez da dirudieN BEZAIN gogorra.*
- Txakurretan beste katu dago etxe honetan.*
- Hau dirudieN BAINO errazaGOa da.*
- Eskatu nioN BAINO diru GEHIAGO eman zidan.*
- Berandu etortzen da, zu BEZALA.*
- Zu BEZALAKO astokilorik ez dut ezagutzen.*

5.2.3.4. Helburuzkoak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabe
-N (subjuntiboa)	-TEKO
	-TERA
	-TEARREN
	-TEAGATIK
	-TEKOTAN

Adibideak:

- Hauek jaTEKO erosi ditut; beste horiek, ordea, izozTEKO.*
- Buelta bat egiTERA noa. Bazatoz?*
- Zurekin egoTEARREN etorri naiz.*

d) *Edozer emango nuke hori jakiTEAGATIK.*

5.2.3.5. Kausazkoak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabe
-LAKO	-TEAGATIK
... ETA	-TEARREN
BAIT-	
-NEZ (GERO)	
-LA ETA, -LA KAUSA	
-LA BIDE, -LA MEDIO	
ZEREN BAIT-/-N	

Adibideak:

- Joan deLAKO haserretu da.*
- Etxean geratu da, buruko mina zeukan ETA.*
- Ezin diot esan, ez BAITakit non dagoen.*
- Apurtuta zegoeNEZ GERO, zaramara bota dut.*
- Kontuz ez ibilTZEAGATIK apurtu zaizu.*
- Zenbat diru ordaindu dizute hau egiTEARREN?*

5.2.3.6. Baldintzazkoak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabe
(BALDIN) BA-	-Z GERO
(Erreala)	-TEKOTAN
(Alegiazkoa)	-TERA
	EZEAN, EZIK

Adibideak:

- Ikusten (BALDIN) BADUT, jakinaraziko dizut.*
- Gurekin etorriko BALITZ, izugarri poztuKO GINATEKE.*
- Ahal izanEZ GERO, etorriko naiz.*
- Inora joaTEKOTAN, baserrira joan nahi nuke.*
- Oraingoan asmatu EZIK, ez dut berriro jokatu..*
- Premiazkoa izan EZEAN, hobe da biharko uztea.*

5.2.3.7. Kontzesiboak.

Aditz jokatuan	Aditz jokatu gabe
-N ARREN	ARREN
NAHIZ ETA -N	NAHIZ (ETA)
BA-... ERE	-TA ERE, -IK ERE
-LA ERE	-Z GERO ERE
-LARIK ERE	-AGATIK (ERE)

Adibideak:

- Ordaindu didateN ARREN, ez dut egingo.*
- NAHIZ ETA dirurik ez daukadan, ondo bizi naiz.*
- Gaixorik BAdago ERE, etorri egin behar du.*

- d) Txarto egin ARREN ordaindu egin didate.
 e) NAHIZ ETA ondo egin, ez zuen lortu.
 f) Mesedez eskatuTA ERE ez dizut emango.

5.3. TESTU MAILAKO LOTURA: LOKAILUAK

Emendiozkoa	Hautakariak	Aurkaritzako	Ondoriozkoa	Kausazkoak
k ere ere bai, ere ez baita ... ere ezta ... ere gainera bestalde halaber orobat behintzat bederen behinik behin gutxienez	bestela osterantzean gainerakoan gainerontzean ezpabere	ak ordea, berriz ostera, aldiz aitzitik, alabaina bizkitartean dena dela / den hala ere hala eta guztiz ere haatik, horratik barren	k beraz bada hortaz orduan honenbestez horrenbestez hala halatan	zeren zergatik ze alabaina bada izan ere

5.4. TESTU ANTOLATZAILEAK

Hasiera

Hasteko, hasteko esan dezadan, lehenengo eta behin, aztertuko dugun gaia, idazki (hitzaldi) honen bidez, idazki (hitzaldi) honen helburua, ...-z hitz egin behar dudalarik, batez ere, egun hartan, ezer baino lehen, bazen behin, lehen-lehenik, gizona mundura baino lehen, dena ... hasi zen,...

Ordena

Baita ere, ildo beretik, honako hau, honekin batera, bestea beste, era berean, bigarrenik, ez hori bakarrik, gorago esan bezala, lehen (arestian) esan bezala, are gehiago, beste batzuetan, honen ondoren, berriro ere, gisa berean,...

Hierarkizazioa

Batez ere, guztien gainetik, baino gehiago, batik bat, ez bezala, ezer baino lehen, ezezik ... ere,...

Ideia berriak

Gainera, egia esan, modu berean, ezezik ... ere, are gehiago, bestetik, halaber, eta, ez hori bakarrik, bestalde, baita ere, ere bai,...

Kontrastea

Dena delarik ere, horren aurka, esanak esan, edozein modutan ere, hori horrela izanik ere, zernahi gisaz (ere), aurrekoaren kontrara, kontuan hartu baina, datorrena datorrela, hori gorabehera, kontuan izan bestetik, nolanahi ere,...

Beharizana

Derrigorrez, ezinbestean, ezinbestekoa da, nahitaez, halabeharrez, beharrezkoa da,...

Jarraipena

Honen ondoren, hariarekin jarraituz, era berean, bigarrenik, baita ere, gero, honen ostean, hau ikusi eta gero, hau ikusi ondoren, bigarrenez, honez gain, aurrera beharrez,...

Arrazoia

Bait-, -nez gero, -la bide, zeren eta, horregatik, -lako, -la eta, -la kausa, behin eta berriro, -tearren, -teagatik, prezeski,...

Denbora

Lehen, gaur egun, orduan, gero, antzina, egun batez, XXI. mendean, orain, hasieran, lehenengo egunean, azkenik, behiala, halako batean, beranduago, laster, lehenengo, orain arte, behin (batean), 1997an,...

Exenplutasuna

Adibidez, konparazio baterako, hori argitzeko, alegia, eman dezagun, konkretatuz gero, esate baterako, demagun, bestea beste, hau da, pentsa dezagun, esaterako, kasu, aipa dezadan, hots, besteen artean,...

Ziurtasuna

Ez dago dudarik, onartu behar da, seguraski, onartuta dagoenez, nola ez!, zer esanik ez, noski, ziurrenez, hala bada ere, onartzen denez, egia da, dudarik gabe, jakina, benetan, zinez, ezbairik gabe, ez dago zalantzarik, argi dago, denok dakigu, ziur egon, jakina denez, bistan dago,...

Balorazioa

Zorionez, tamalez, espero dezagun, zoritxarrez, eskerrak, ez legoke gaizki, espero izan

Bukaera

Bukatzeko, amaitzeko, laburbilduz, konklusio gisa, amai dezagun esanez, azkenez, azkenik, eta besterik gabe, honela, laburtuz, hitz gutxitan, bukaeran, honek zera erakusten digu, horrenbestez,...

Indartzea

Aipatu bezala, batez ere, beste era batera esanda, gauzak horrela, hain zuzen ere, lehenengo hariari jarraituz, mila bider esana dugun bezala, aipatu dugunez, berriro esanda, dakizuenez, dakikezuenez, hau azpimarratzeko, hori horrela delarik, esanak esan,...

Lekutasuna

Hemen, hor, harantzago, beste tokietan, -en alboan, goian, behean, urrutirago, eskuinean, atzean, aurrean, atzeko aldean, -tik gertu,...

Parekidetasuna

Era berean, alde batetik, beste (konparazioan), ezta ere, bai ... bai, bezala, halaber, bestetik, bezain, baita ere, dela ... dela, legez, orobat, adina, lain, moduan, antzera,...

Probabilitatea

Dirudienez, agidanez, antza, omen, ei, inondik ere, itxura denez, itxuraz, badirudi, nonbait, esan daiteke, beharbada, agian, onenean (ere), diotenez, baliteke, apika, seguru asko, nonbait, dirudienez, antza denez, baliteke, susmatu, uste izan, izango zen, izan zitekeen, omen, ote,...

Ondorioa

Esandakoaren arabera, laburki, hau guztia dela eta, funtsean, argi dago, bada, honen ondorioz, horren kausaz, esanak esan, on litzateke, hau dela bide, ... kontuan izanik, hain zuzen

C. EBALUAZIOA.

Bi zatitan egingo da: Idatzizkoa eta ahozkoa. Ikasleak idatzizkoa gainditu beharko du ahozkoa egin ahal izateko. Idatziaren nota iraila arte gordeko zaio.

AZTERKETA IDATZIA

a. Test erako proba.

Era askotako galderak test eran erantzun., tartean entzungai bati buruzkoak.

b. Ariketa laburrak.

Berridazketak.

Hutsuneak bete.

Bat-bateko itzulpenak.

c. Idazmena eta itzulpena.

Emandako bi gai edo egoeraren artean aukeratu eta orrialde beteko idazlana osatu. (350 hitz).

Testu labur bat itzuli gazteleratik euskarara.

AHOZKO AZTERKETA.

Testu baten laburpen komentatua eta gai bati buruzko azalpena.

D. BIBLIOGRAFIA.

Testu liburuak eta osagarriak:

Euskal Gramatika Osoa. Ilari Zubiri & Entzi Zubiri. Didaktiker.

Euskal Gramatika Laburra. Euskaltzaindia.

Estilo liburua. Egunkaria.

Gramatika gaitasuna lantzen. Eusko Jaurlaritza.

Irakurgaiak:

GOMENDATZEN DIREN LIBURUAK.

Elaberriak

Gizona bere bakardadean. Bernardo Atxaga. Pamiela.

Metxa esaten dioten Agirretar baten ibili herrenak. Koldo Izagirre. Elkar.

Galdu arte. Juan Luis Zabala. Susa.

Babilonia. Joan Mari Irigoien. Elkar.

Katebegi galdua. Jon Alonso. Susa.

Joanak Joan. Yon Etxaide. Erein.

Bihotz bi. Ramon Saizarbitoria. Erein.

Ur uherrak. Aingeru Epaltza. Pamiela.

Krisalida. Pako Aristi. Erein.

Berandu da gelditzeko. Unai Iturriaga. Susa.

Kilkirra eta roulottea. Joxemari Iturralde. Erein.

Ipuinak

Azukrea belazeetan. Inazio Mujika Iraola. Erein.

Gasteizko hondartzak. Xabier Montoia. Susa.

Auto-stopeko ipuinak. Pako Aristi. Erein

Itzulpenak

Ixtorio hautatuak. Roald Dahl. Elkar.

Odol hotzean. Truman Capote. Igela

Betiko loa. Raymond Chandler. Igela

Aliceren abenturak lurralde miresgarrian. Lewis Carroll. Pamiela

Ispiluan barrena. Lewis Carroll. Pamiela

Bestelakoak

Letrak kalekantoitik. Anjel Lertxundi. Alberdania

Gay nauzu. Lamarka. Alberdania.

Orhipean. Xamar. Pamiela